

[Pertsonaien psikologian eta barne sentimenduetan sakonduz, bizitzaren zentzua bilatzea da Sandor Márairen helburua.]

## **Eszterren Ondarea**

Sandor Márai

*Itzultzailea: Ander Irizar*

2003

Igela

Argitaletxe beraren eskutik ezagutu nuen aurrenekoz Sandor Márai. *Azken hitzordua* izeneko eleberria zen hura, *Eszterren Ondarea* baino hiru urte beranduago argitaratua. Handiak dira antzekotasunak bi eleberrien artean, bai gaiaren aldetik bai eta idatzitza dauden moldearengatik ere. Nolanahi ere, Sandor Márairen mundura hurbiltzeko hobe, nik uste, aurrena *Eszterren Ondarea* irakurtzea, izan ere, batetik, egituraz arinagoa baita eta, bestetik, eleberri horretan baitaude gero hurrengo eleberrietan era anbiziotsuagoan garatuko dituen azterketa psikologiko, gogoeta eta pertsonaien sentimenduen barruan egindako bidaia eta azterketak.

Eskema berberari jarriaten diote eleberri biek. Urte asko igaro ondoren berriro elkartu eta halako kontu-garbiketa bat egiten da bietan ala bietan. *Eszterren Ondarea* eleberrian Eszter bera dugu narratzaile, kontalari. Lajos izan da bere bizitzako amodioa. Hura, ordea, Eszterren ahizparekin ezkondu zen duela hogeitau urte. Orain, alargundurik, Eszterrengana itzuli da Lajos, beti bezala gezurrak eta amarruak erabiliz, eskatzera. Dirua, ondarea, baita berarengatik hurbil, ezen ez etxe berean, bizitzera joateko eskatzera. Gizon eskrupulorik gabea, ondo ezagutzen du, ordea, Eszterrek, eta barkatu egiten dio, ulertu egiten du, ezin, azken batean, harengandik sentitzen duen maitasunari eta erakarmenari ihes egin. Eszterrek, badaki, ordea, hiltzera doala eta horregatik kontatu nahi ditu Lajoseren itzulera, Lajoseren eskakizunak, historia guztiaren sorburua (itzulera-egunetik atzera egiten du, iraganerako jauziak egiten ditu). Eta, Lajosek ez bezala, egia esan nahi du gainera, zintzoki esan nahi du egia: “Egiaren alde zintzo egin nahi dut –izan al lezake idazki honek beste asmorik?-,...”

Molde klasikoan dago idatzia, Flaubert edo Balzac-en erara. Ez du eleberri abangoardista edo esperimentaletik ezer. Zerk egiten du orduan horren erakargarri eleberri hau –eta Márairen gainerakoak-, nola esplikatzen 57 urtez –debekatua izan baitzen Hungariako isilpean egon ondoren, gaur egun, eleberri horiek berreskuratu eta halako arrakasta izatea? Nire ustez, klabea Sandor Márairen beraren obsesioan datza. Obsesionatuta dago gizakion sentimenduekin eta, azken finean, bizitzaren zentzuarekin.

Horregeatik sentiarazten digu halako zirrara bat, mugitu egiten digu zerbait barruan, identifikatuta sentitzen gara eleberrian zehar pertsonaien barne-azterketa psikologikoak zehatz-mehatz egiten direnean.

Kontakizuna ez du ekintzak egituratzen, protagonisten pentsamendu argiek baizik. “Gizonak ez du pikatxa eta palarekin soilik bereganatzen leku jakin bat, baita pikatxa eta palari eragiterakoan pentsatzen duenarakin ere”. Hala esan omen zuen behin Sandor Máraik. Eta hortxe dago gakoa. Guztiz kontraesankorrak, anbiguoak, zailak dira sentimenduak. Horietaz gogoeta egin eta, ahal duen heinean, arrazoiaren mugetatik kanpo iritsi arte, horiek esplikatzen saiatzen zaigu Sandor Márai bere pertsonaien ahotik. Orduantxe ukitzen digu zerbait barruan. Hala, hildakoek ere eragina dute gure bizitzan. Vilma, Eszterren ahizpa hila, presente dago eleberrian, presente haien bizitzan, eta eragin egiten du oraindik ere harremanetan. Eguneroko bizitzan isilpean gordeta eduki arren, beti hor dauzkagun sentimendu korapilatsuak azaleratzen dizkigu, hortaz, Máraik.

Goitik-behera, zehatz-mehatz deskribatzen zaigu pertsonaien izaera. Idazkera zorrotz bezain argia darabil hortarako. Idazkera objektiboarekin heltzen ez den lekuetaraino iristen da konparazioak eta irudizko baliabideak erabiliz: “...belar txarra giro egokian ugaritzen den bezala areagotzen baitzen nahas-mahasa haren inguruan. Ahalegin horri zehaztasun eta argitasun berberaz erantzun dio Ander Irizar itzultzaileak. Ez zaio inondik antzematen itzulpena denik eta, labur beharrez, itzulpen honen dohainetako bat nabarmentzekotan, hainbat esaldi luzetan aditza aurreratzearena aipatuko nuke. Bikain funtzionatzen du.

Badira liburu batzuk irakurtzen amaitu eta urduri antzean uzten gaituztenak, barruan zerbait ukitzen digutenak. Horietakoa dugu hauxe.

Mikel Garmendia